

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **11/2021 Mozioa, otsailaren 19koa, Arabako espetxea iragartzeko eta bertara sartzeko bide-seinaleak hobetzeari buruz**

Arabako Batzar Nagusi hauetako Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren VI. Batzordeak, 2021eko otsailaren 19an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

11/2021 Mozioa, otsailaren 19koa, Arabako espetxea iragartzeko eta bertara sartzeko bide-seinaleak hobetzeari buruz.

Arabako Batzar Nagusiek Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari eskatzen diote azter dezala, Arabako Espetxeko zuzendaritzarekin lankidetzan arituz, indarrean diren legeen arabera proposatu daitezkeen jarduketak ahalik eta lasterren hobetzeko Aldundiaren errepi-de-sarean dauden espetxe hori iragartzeko eta bertara sartzeko bide-seinaleak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 19a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**